

# C'est très joli



ARITZ GALARRAGA

**G**isèle Sergier, hogeita bi urte, kirrua, begi urdinak, luzea eta mehea. Politagoa ezin. Galdu du birjintasuna, baina ez zaio axola. Haurdun geratu da, abortatu egingo du. 1969an. Beti daki behar dena egiten Gisèle honek. Gisèle beste klase batekoa da. Ez alferrik, euskal nobelagintza modernoko lehen emakume protagonista dugu, Elsa Scheelenekin batera. Kurioski, atzerri-tarrak biak, ez euskaldunak, atzerrian kokatuta baitaude biak ala biak hartzen dituzten eleberriak. Inoiz ez dut jakin zergatik kokatu zuen Saizarbitoriak bere estreinako nobela Suitzan. Tira, badakit han idatzi zuela, Friburgen, soziologia ikasketak egiten zituen bitartean, eta imajinatzen dut zentsura pasatzen ere lagunduko zuela, halako gauzak, abortua eta, Suitzako neska baten larruan jartzeak. Eta gero, bada, Suitza, badakigu, politagoa ezin.

Kontatu izan ditu Suitzako gauza batzuk, ordea, Saizarbitoriak. Suitzatik eskualde bakarra ezagutu zuela, adibidez. Egin zituen lagunak Suitza italiarrekoak zirela, "geure antzekoenak zirelako". Eta aspertuta zeudela hainbeste txukuntasunez: "Gu, geureaz harro; eta beroiek, berriz, beren gizarte oparoaz nazkatuta, aberatsak, txukunak, libreak eta ongi zainduak izatearen kontzientzia txarrarekin". Kontatu dituen artean maitena, aldiz, hauxe: han euskaldunok, beti egiten ohi dugun eran, elkarrekin eta elkarren ondoan ibiltzen zirela, Mikel Lasa, Rafa Eiguren, beti herriminez, beti Euskal Herriari begira. Halako batean agertu zitzaion Matxain izeneko bat, gaintzarra, iheslaria. Eta guztio-na zen herriminak jota bizitzea, baina azken horrena bezalakorik ez da ezagutu: Norbaitekin topo egiten zuenean *Tu connais Gaintza?* galdetzen zion, eta, noski, ezetz erantzuten zioten. Orduan berak: *C'est très joli*. Ez dut ukatuko nik Gaintza ezin politagoa denik, baina zalantza gehiago daukat etengabe atzera, etengabe etxera, etengabe utzi duzunari begira egote hori, beti penetan, izan daitekeen osasungarri. ●



## COVID ziurtagiria

Nafarroako ekitaldi jendetsuetan eta aisialdiko establezimenduetan beharrezkoa izango da ziurtagiria. EAEn, Jaurlaritzak helegitea aurkeztu du Espainiako Auzitegi Gorenean, ziurtagiria baimentzeko. Ipar Euskal Herrian, txertoaren hirugarren dosia beharko da ziurtagiria baliogarri izateko.

## Azoka

Durangoko Azoka presentziala eta streaming bidezkoa izango da, baina aurrez izena eman beharko dute Landako Gunera zein Ahotseneara joan nahi dutenek (durangokoazoka.eus helbidean). Azoka bisitatzeko ordu eta erdiko bost txanda egongo dira egunero, 10:00etatik 20:00etara.

## Bertsolaritza

Bi hilabete iraun dituen Nafarroako 45. Bertsolari Txapelketan, lehen aldiz finalera iritsi eta txapela jantzi du Saioa Alkaizak, Eneko Lazkozekin buruz burukoa jokatu eta gero. Bertsolaritzaren alde ekarpen handia egin duen Estitxu Arozenak jantzi dio txapela irabazleari.